

Isabel Lopez Aulestia

«Hauteskunde-barrutien ereduak suntsitu egiten du IU-EB»

Donostia, 1948. Familia antifrankistan jaioa. Madrilen ikasten ari zela, 18 urterekin, hasi zen politikan: PCn. Filosofian eta Letretan katedraduna da. EBko kidea. Kongresurako hautagaia EB-Berdeak-en izenean. Europako Ezkerreko Alderdian ari da. Senataria izan da azken legealdian. EAEko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Herritarren Partaidetzarako zuzendaria da. Duela lau urte irakaskuntza utzi zuen politikan buru-belarri aritzeko. Ez da erabakiaz damutu. Politikagintza pasioz bizi duela antzeman diogu. Bi semeen ama da, eta amona berriki.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Maddi Soroa



“Frankismoan komunista nintzen eta hala sentitzen naiz gaur egun ere. Oso gustura nago EBn. Sistema demokratikoan ari gara, baina mundu injustu batean bizi gara. Kultura, arraza, nazio edota erlijio diskriminazioak bizirik daude. Ezkerrekoa eta komunista izatea ia-ia behar morala da niretzat” adierazi digu Isabel Lopez Aulestia.

Komunismoaren utopia aipaturik, irri egin digu eta pasadizo hau kontatu: “Komunismoa datorrenean aberatsei dirua kenduko diete, baina karrera ez. Ikasi, ikasi... esaten zigun gure aitak”.

Emakumearen rola politikan izan dugu hizpide segidan: “Ez naiz karguen zereginean diskriminatua sentitu, baina emakumeok ez gara gizonak bezain lehiakorak, ez ditugu euren anbizioak. Gizonek zerrendaburu izateko borrokatzen dute, gu aldiz apur bat kokiltzen gara”. Generoen biolentzia, berriz, saminez darama: “Emakumeon emantzipazioak bide egin du eta gizarte matxista honek ez du onartu. Emakumeen hilketak borrokaren eta eskubideen prezio ankerra dira”.

Zer iritzi duzu bukatu berri den legealdi honetan Zapaterok burutu duen politikaz, ezkerreko ikuspegitik.

PPren eskutik espero genuen legealdiarekin alderatuz gero, Zapateroren gobernuaren politika positiboa izan da. Zapaterok gehiengo osoa lortu ez zuenez, noraezean ibili ostean, ezkerrean

KARGU POLITIKOETAN ESPERIENTZIA

“Erregioak deitzen dituzten herriak onartu beharko dituzte estatuek”

EAEKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ZUZENDARIA: “EBren helburua, herritarren partaidetza Jauriaritzako sail guztietan garatzea zen, modu transbertsanean aritzea. EAJk eta EAK ez zuten behar hori ikusi, tamalez. Ekimena Zuzendaritza Gizarte eta Etxebizitza Sailera mugatu da beraz. Gizarteak demokraziaren xarma eta politikarekiko interesa galdu ditu. Gure nahia erakundeen atea zabaltzea da, herritarrak erabaki gunetara erakartzea, demokrazian sakontzea. Parte hartzeko modua lantzen ari gara, eredu berriak bilatuz; alderdikeriak baztertuz eta promesa faltsurik egin gabe, noski”.

SENATARIA AZKEN LEGEALDIKO LEHEN BI URTEETAN: “PSOEko Juan Jose Laborda presidentea zela aritu nintzen senatari. Interesgarria izan zen. Senatuko Ganberako mahai parean, besteak beste, EAJ, CiU, Iniciativa per Catalunya- Verds, Esquerra Republicana eta Valentziako Entesa koalizioko senatariak geunden. PSOEko ordezkariak ezkerrean, PPKo-ak eskuinean eta gu haien erdian. Osoko bilkuretan sesio

izugarriak izaten ziren. Guk esaten genuenaren arabera, oihuka edo txaloka aritzen ziren batzuk nahiz besteak. Behinola Errenteriako Institutuko nire ikasleak etorri ziren bisitan. Ni lotsatuta nintzen. Egun hartan ez zen osoko bilerarik izan. Eskerrak esan nion beraiekin zetorren inspektoreari: hain gaizki portatzen garenez! Ikusi izan bagintuzte, zer kontutako ote zuten eskolan?”.

EUROPAKO EZKERREKO ALDERDIAN ORDEZKARIA: “Europako eraikuntza hurbiletik segitzen dut. Ezkerreko Alderdian ari naiz, baita Eusko Jauriaritzaren menpeko Europako Euskal Kontseiluan ere. Hainbat prozesu edota prozedurarekin ados ez naizen arren, Europaren ideia zirraragarria da niretzat. Europaren eraikuntzak XIX. mendean sortutako estatu ereduak birformulatzea eramango gaitu. Europako Ezkerreko Alderdiaren apustua Herrien Europa da. Estatuek egun erregioak deitzen dituzten herriak onartu beharko dituzte eredu berrian”.

jo zuen sostengu eske. Laguntza horri esker legealdiaren lehen bi urteko politika emankorra izan zen: homosexualen ezkontza, berdintasuna eta dependentziaren legeak berriro zituen. Oroimen Historikoaren Legea ere onartu zen azkenik. Ni harro nago horietaz guztietaz, lege horien eztabaidan –Senatuan– parte hartu nuelako. Legeon osagai aurrerazaleak IUk proposatu zituen eta PSOE estutu zuelako onartu dira. PSOEek legealdiaren erdialdean zentro alderako bira eman zuen ordea. Alderdi nazionalisten sostenguarekin gobernatzea errazago zuela pentsatu zuen nonbait.

Bira hark ez zuen ezer berririk ekarri, ordea. Kataluniako esperientzia eta EAeko ez dira emankorrek izan.

Esperientzia zapuzgarriak izan dira, Kataluniako Estatutuaren porrota lekuko. Zapateroren hitzak esperantza-garriak izan ziren: “Kataluniako Parlamentetik datorrena onartuko dut” esan zuen. Estatutu berria ordea Artur Mas-en eta bere artean desitxuratu zuten Moncloan. Zapaterok, halaber, Eusko Legebiltzarrak onartutako Estatutu Berrirako Plana ez zuen ezta begiratu ere egin. Ondorioa: PSOEek zein PPK bat egiten dute gai honetan.

Bake eta normalizazio prozesua ere ezagutu dugu legealdi honetan.

Baita porrota ezagutu ere. Gizarteak oraingoan prozesua aurrera aterako zela sinestuta zegoen. Zapatero ausartagoa izan balitz zer gertatuko zen ezagutzea gustatuko litzaidake, baita ETAk aurrera egiteak zentzurik ez zekala ulertu balu ere. Ez naiz menturatzten esatera non egongo ginatkeen... ETAk ez du onartu borroka armatuaren amaiera iritsi dela, ez du ulertu ezta ere jarraitzeak sufrimendua besterik ez duela ekarriko. ETAk bere helburua

“Barrutiak probintzia mailakoak izan ordez, autonomien mailakoak balira, boto kopuru berarekin lau diputatu izatetik hogeizatera pasako ginatete”

Euskadi Independente eta Sozialista dela dio. Bere bideak ez duela hartara eramango ez ohartzea ere.

Martxoko hauteskundeak irabaziz gero benetako Zapatero ikusiko dugu, esan du Andoni Ortuzar jeltzaleak.

Zapaterok aldiz, ETA arras garaitu beharra dagoela dio. Elektoralismo hutsa egiten ari da. Ondo bidez, Zapatero berriz ere saiatuko da bake prozesua bideratzen, ez saiatzea

arduragabekeria litzateke eta. PPre presioak beldurtzen du orain, biktimen inguruko PPre demagogiak. Irabazten badu saiatuko da, Aznar ere saiatu zen. Besterik da saiatzeak zer kostu politiko ekarriko dion. Auzia alde guztientzako modu egokian konpontzea da benetan zaila.

Nola ikusten duzu IU, PSOEren eta PPre bipartidismoaren artean.

Ezkerra oso egoera zailean dago, hemen eta Europan. Hauteskunderetako emaitzak ez dira inon faboragarriak ezkerrentzako. IUk ere egoera hori nozitzen du. Gainera Espainiako Estatuko hauteskunde sistema oso kaltegarria da guretzat, ez da egokia minorientzat. D’Hondt legea jotzen da horren erruduna, baina hori baino gehiago da. Hauteskunde-barrutien ereduak IU eta EB zeharo suntsitzen dituzte. Barrutiak probintzia mailakoak izan ordez, autonomien mailakoak balira, boto kopuru berarekin lau diputatu izatetik hogeizatera pasako ginatete. Bi alderdi nagusien sisteman ezkerrek zailtasunak ditu bere eredu gizarteratzeko. Sistema injustua dela diote denek, baina inork ez du ezer egiten berau aldatzeko.

IUk zaila du muga hori gainditzea. Ezkerreko eta IUren botoematea hagitx zorrotza da. Erraz gogogabe-

tzen da eta horrek kalte egiten digu. Euskal Herrian nahiz Estatuan jende askok faltan hartzen du ezker eraldatzailea halere: aberastasuna partekatua, ingurumenaren kudeaketa zehatzagoa, zerbitzu sozialen hobetzea eta hezkuntzaren sistema laikoa hobesten dituen. Ezkertiar hauen botoen parte handiena ez doa alderdi sozialistara, baina hedabideen eraginarekin bitartez –IURI izugarritzko egurra ematen diote– eta gure kontraesanak tarteko, ozta-ozta ibili gara boto horiek geureganatzeko. Hori duzu gure boto esparrua eta berau bereganatzea erronka.

Zer balorazio egiten duzu EAJ, EA, EB eta Aralarren arteko EH Bai izeneko koalizioaren inguruan gertatuaz?

Na-Baik arrakasta izan zuen eta Aralarrek bide bera urratu nahi zuen; [EAJ]ko Egibarrek ere eredia landu nahi zuen, antza. Baina, bistan denez, Nafarroan EAJ gutxiengoa da, eta EAEn berriz guztiz hegemonikoa. Gu Bizkaiko EAJk ez zuela ekimena begi onez jo oharatu ginen eta EAJ bizkaitarrak pisu handia du alderdian. Proposamena zabaldu zenean guk ez genuen Aralarren eta EAren gogoia agertu, noski. Gauza bat da bakarka joatea eta ondoren koalizioan gobernatzea. Hauteskunde hauetarako koalizio hain zabala osatzea ia-ia ezinezkoa da.

Aralarrekin ere ez da osatu koalizioa.

Foru aldundietan izan genituen emaitzak ikusita, biziki sentitzen dut koalizioan joan ez izana. Emaitza hobekoak lortuko genituzke, dudarik gabe. EB eta IU ezkerreko batzeko asmoz sortu ziren. Alderdien pisua arinduz, programak batzen joatea da gure apustu estrategikoa. Akordio eza bidean izandako eten bat bezala hartu behar dugu.

Zerrendaburuak partekatzea ez da erraza, antza.

Aralarrek zerrendaburuak partekatu nahi zituen eta horretan erratu da. EBk Gipuzkoan zerrendaburu gurea izan, eta aulkia lortuz gero proportzionalki partekatzea proposatu dio. Lehen hiru urteetan EBk ordezkatuta eta gero Aralarrek. Araban zerrendaburu berea izatea nahi zuen, baina zertarako balio dio Aralarren hautagaia burua izateak, argi badago lortuko ez duela?

Isabel Lopez Aulestia

“PSOEk Euskadin egiten duen politika Estatuan islatzea nahi du. Badakigu Euskadi dela Estatu politikaren eskaparatea eta badakigu baita ere Euskadiren zein irudi interesatzen zaion PSOERI”.

Gipuzkoako diputatu izateko aukera ikusten duzu EB-Berdeak-en izenean?

PCren eta IUREN izenean hautagai izan nintzen behiala. Ilusionatuta nago. Aukera dudala pentsatuz ekinen diogu kanpainari. Jakina, hauteskundeen tes-tuinguruak eragingo du.

Ezker abertzaleko EHAK eta ANV legez kanpo geratzek eragingo du. IUREN kasuan zehazki?

Ez dakit, orokorrean, nola eragingo duen ezker abertzalearen edozein aukera legez kanpo geratzek, edonola ere boto hori ez da EBra etorriko. Kontua da boto baliogabetu hori abstentziora edo beste alderdi batera joango den. Horrek eragingo du EBren diputatua lortzeko aukeran.

Egoera latz hau behin eta berriz errepikatzen da. Zer iritzi duzu?

Egoera ikaragarria da. Indar politikoak legez kanpo uzteari buruzko EBren iritzia ezaguna da. Zer lortzen da milaka pertsona hauteskundeetatik kanpo utzita? Horregatik ez dira beren ideiak aldatzen, aitzitik, errepresioaren ondorioz gotortzen dira. Egoera PSOEn interesen ondorioa da neurri batean, egoera interes elektoralei lotuta dago. Udal hauteskundetan herri batzuetan zerrendak legez kanpo geratu ziren, bestetan ez. Azken urteotako hauteskundeak Espainian gobernatzen duen alderdiaren nahiaren arabera jokatzeko ari dira, zoritxarrez.

PSEk aldiz, egoera Eusko Jaurlaritzan dauden alderdi abertzaleei ondo datorkiela esan ohi du. EB berauekin gobernatzen ari da koalizioan.

Baita zera ere! PSEko Rodolfo Ares bozeramaleak “hauteskunde hauetan Euskadin jokatzeko dena Zapatero edo Raxoi gobernoburu izatea da”



esan du. Hara, hori ere entzun behar izatea. Euskadin ez da Espainiako presidentea jokoan inoiz izan. Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa edota Extremaduran bai. Euskadiko emaitzek ez dute Estatu Gobernuaren erabakitzeko. PSOEk Euskadin egiten duen politika Estatuan islatzea nahi du. Badakigu Euskadi dela Estatu politikaren eskaparatea eta badakigu baita ere Euskadiren zein irudi interesatzen zaion PSOERI une honetan.

Azkenik, hirugarren espazio politikoa da EBren helburua. Zertan dago ekimena?

Euskadiko eta Euskal Herriko harremanak oro har Espainiako nahiz Frantziako Estatuarekin eredu federalean gauzatzea da gure helburua. Gaur gaurkoz, elkarbizitzarako aukera egokiena federalismoa da gure ustez. Besterik da eman beharreko pausoak nola izan behar duten. Alabaina, hemendik urte batzuetara Europa federala izango da, eta denek esango dute beraiek proposatutako ideia izan zela. Begira iraganera, PP Euskadiko Autonomia Estatuaren aurka gogor aritu zen eta orain Gernikara joaten da berau ohoratzen. ■